

DEIALDIA: OSASUN ARLOAN TEKNOLOGIA GARATZEKO PROIEKTUAK 2015 (CIIIOI)

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, Carlos III.a Osasun Institutuaren (ISCIII) bidez, 2015 urteko laguntzen deialdia egin du osasun arloan teknologia garatzeko proiektuetarako. Deialdia 2013-2016 aldiko Osasunaren arloko Ekintza Estrategikoaren barruan dago. ([2015-03-03ko EBO](#))

Interneteko helbidea:

<http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/acceso-solicitud-ayudas.shtml>

Deialdiaren helburua:

Garapen proiektuak finantzatzea, betiere proiektu horiek kontrastatuta dauden atariko esperientzietan oinarrituta, eta garapen fasean bultzatuko direnak.

Proiektu motak eta horien ezaugarriak:

- a) **Bakarkako Proiektuak:** erakunde eskatzaile batek aurkeztuta eta ikertzaile nagusi batek, buru gisa, zuzenduko duen talde batek gauzatuta.
- b) **Koordinatutako Proiektuak:** bi azpi proiektuz edo gehiagoz osaturik, hainbat erakunde eskatzailek eskatuta. Memorian egokiro justifikatu beharko dute proposatutako xedeei ekiteko koordinatzeko duten beharra, baita espero dituzten etekinak ere.

Proiektuak burutzeko epe arrunta bi urtekoa izango da, erabakian zehazten den egunetik kontatzen hasita.

NAHITAEZKOA izango da **proiektuek garapenean eta haien emaitzetan interesa duten enprekin edo beste erakunde publiko edo pribatuekin lotura izatea**, eta parte hartze horrek **ez die ekarriko** inolako laguntza zuzenik, enpresa edo erakunde horiei, deialdi honetan eman litezkeen diru laguntzen kontura.

Eskaera kopurua mugatuta dago, hau da, bi eskaera dira, gehienez, osasun ikerketarako institutu bakoitzeko, **eta bakarra gainerako erakunde eskatzaileentzat**. Horrenbestez, eskaeren gehieneko kopurua modalitate osoari aplikatuko zaio, alde batera utzita zer proiektu mota eskatu den, bakarkakoa edo koordinatua.

Eskaerak aurkezteko epeak:

Hau da eskaerak egiteko epea: **2015eko martxoaren 10etik apirilaren 9ko 15:00ak arte** (bi egunak barne).

Eskaera nola egin:

Aplikazioan datuak sartu baino lehen, **martxoaren 20aren aurretik**, hain zuzen, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzara igorri behar da (emaila: convocatorias.dgi@ehu.es) langileen **Excela**, **Ikerketaren webgunean** eskegitakoa (<http://www.ehu.eus/es/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-estatuko-deialdiak>), ekipoa berrikusteko, deialdian ezarritako betekizunen/bateraezintasunen arabera.

Proposatutako langileek onartu ondoren, eskaerak elektronikoki beteko dira, ISCIIIren webgunearen bidez (<http://sede.isciii.gob.es>). Zehazki, 2 modutan egin daiteke:

- A. Ziurtagiri elektronikorik gabe (ohiko prozedura):** dokumentu guztiak igo behar dira aplikaziora, fitxategi elektronikoen bidez (PDF). Bitarteko telematikoen bidez igorriko dira. "Eskaera sortu" botoia sakatzean, eskaera egiteko formulario agiria sortuko da, PDF formatuan. **Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatu** behar du, eta **eskaerak aurkezteko epean** igorri beharko zaio Carlos III.a Osasun Institutuari (ISCIII).
- B. Ziurtagiri elektronikoarekin:** aukera hori hautatuz gero, eskaerak ISCIIIren erregistro elektronikoa aurkeztuko dira, informatika aplikazioaren bidez, ziurtagiri elektronikoa emateko sistemen bidez. Erregistroak automatikoki igorriko du eskaera elektronikoa eta egin dela eta eskaerarekin batera emandako dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatzen duen agiria. Kasu horretan, ez da beharrezkoa eskaera paperean igortzea.

GARRANTZITSUA: A) modalitatean ez da baliagarritzat joko UPV/EHUko **erregistroa**; beraz, aplikazioaren bidez sortutako eskaerak **apirilaren 5a baino lehen** aurkeztu beharko dira, Ikerketa Arloko Errektoreordetzan, lege ordezkariak sina ditzan. Ondoren, epe barruan izapidetu behar dira ISCIIIIn. Bestalde, **eskaera osoa** eta **proiektuaren memoria** erantsi beharko dira, convocatorias.dgi@ehu.es helbidera igorritako mezuan, espedienteen fisikoki gordetzeko.

Ez da sinatuko egun horren ondoren jasotzen den inolako eskabiderik: automatikoki baztertuko da hautatze prozesutik.

ISCIIIk laguntzak izapidetzeko, **eskaera, memoria eta ikertzaile nagusiaren CVa ezin izango dira zuzendu**, eta ez aurkezteak eskaera onartze izapidetik **baztertzea** ekarriko du.

Informazio gehiago:

Hauek dira erakundearen (hau da, UPV/EHUren) datuak eskaria betetzeko:

IFK: Q-48/18001-B

Helbide soziala: Sarriena auzoa, zk.g.

Posta kodea: 48940

Hiria: Leioa

Lege ordezkaria: Fernando Plazaola Muguruza

Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea

Komenigarria da laguntzaren gida eta ohiko galderen atala irakurtzea ISCIII-ren webgunean: <http://sede.isciii.gob.es>

Informazioa UPV/EHUn:

Telefono zenbakia: 94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.es